



FORU AGINDUA

Mendi Zerbitzua
esp. Zk.: 297-19

Arabako Lurralde Historikoko zenbait parketan fabrika-obraz egindako eta hormaz eta tximiniaz hornitutako instalazioetan (barbakoak edo erretokiak) sua egiteko debekua baliogabetzea.

Nekazaritza Sailaren ekainaren 25eko 291/2019 Foru Aginduak, salbuespenez eta aldi baterako, debekatu zuen Arabako Lurralde Historikoan sua egitea, eta zenbait gomendio eman zituen baso lanak egiten direnean jarraitzeko. Agindu horrek, zortzigarren artikuluan, behin-behineko salbuespena egin zuen parke jakin batzuetako barbakoekin, haiek I. eranskinean zerrendatuta. Hortaz, ez zituen espresuki ixten.

Hala ere, kontuan hartuz ezen Arabako Lurralde Historikoak jasandako bero boladak, 30° C baino gehiagoko tenperaturaz, % 30etik beherako hezetasunaz eta hego-ekialdeko haizeaz, alerta egoera ekarri zuela muturreko tenperatura altuengatik, ekainaren 25eko 291/2019 Foru Aginduaren I. eranskinean jasotako barbakoa horiek erabiltzeak baso sutea pizteko arrisku larria sor zezakeen, inola ere ahaztu ezin zitekeena.

Horregatik, ekainaren 25eko 291/2019 Foru Aginduaren osagarri, ekainaren 27ko 292/2019 Foru Agindua onetsi zen, zeinak debekatu baitzuen fabrika-obraz egindako eta hormaz eta tximiniaz hornitutako instalazio guztiak erabiltzea (barbakoak edo erretokiak) Arabako Lurralde Historikoko landa ingurunean.

Aurretik aipatu den bero bolada amaituta, Mendi Zerbitzuak txostena eman zuen ekainaren 25eko 291/2019 Foru Aginduaren I. eranskinean jasotako parkeetako barbakoek egoerari buruz.

Txosten hori oinarri hartuz, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, ondokoa

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Foru Agindu honen I. eranskinean ageri den behin-behineko zerrendan jasotako parkeetan fabrika-obraz egindako eta hormaz eta tximiniaz hornitutako instalazioetan (barbakoak edo erretokiak) sua egiteko debekua baliogabetzea. Hala ere, edozein unetan ekainaren 25eko 291/2019 Foru Aginduaren bederatzigarren apartatuko baldintzak betetzeari uzten dioten barbakoak itxi ahal izango dira. Salbuespenez, beste instalazio batzuk era justifikatuan erabiltzeko baimena eman ahal izango da. Horretarako, baimena eskatu behar zaio aurrez Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuari, eta kasuz kasu aztertuko dira.

Bigarrena. Honako baliogabetze hau bere onarpenaren egunean sartuko da indarrean.

Hirugarrena. Foru agindua ondoko hauei jakinaraztea: Arabako toki erakundeei, Arabako foru suhiltzaileen erakunde autonomoari, Gasteizko suhiltzaileei, Ertzaintzari, miñoiei, basozainei,



UAGari, nekazari eta abeltzainen elkarteei, baso elkarteei, Arabako ehiza esparruen elkarteei, parke naturaletan zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresei, Arabako Mendi Federazioari eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztzari. Halaber, agintaritzaren agenteei eta toki erakundeen agintariei eskatzen zaie foru agindu honetan xedatutakoak betearaz ditzatela eta hartan debekatutakoak herritarrei jakinaraz diezazkietela. Hori guztia, ALHAOn argitaratzea eragotzi gabe.

Vitoria-Gasteiz.

Eduardo Aguinaco López de Suso

Nekazaritza Saileko foru diputatua
Diputado Foral de Agricultura

María Asunción Quintana Uriarte

Nekazaritza zuzendaria
Directora de Agricultura